

## 91. NAO - 2012ko maiatzaren 15a

### 27. ORDENANTZA

#### **ORDENANTZA FISKALA, BARAÑAINGO UDALEKO HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA ALORRAK ANTOLATZEN DITUEN KIROL JOKOETAN IZEN EMATEKO ETA PARTE HARTZEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA**

Oinarria.

1. artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen lehen tituluko III. kapituluko 2. idatz-zatiko 2. azpiatalean xedatutakoari jarraituz ezarri da ordainarazpen hau, eta haren 28. artikulua baimenaren babesean.

#### **Kontzeptua.**

2. artikulua. Prezio publikoak galdatuko dira, Udaleko Hezkuntza eta Prestakuntza Alorrak urtean antolaturiko "Barañaingo Kirol Jokoetan" -edo gisako bertze izenik badute ere, hartantxe- parte hartu edo horietan parte hartzeko edo horietara joateko eskubidea ematen duten izen emate edo antzeko bertze edozein kontzeptu dela eta, prezio publikoak aplikatzeko bertze ordenantzetan sartuta ez daudenean.

#### **Kudeaketa eta diru-bilketa arauak.**

3. artikulua. Prezio publikoaren zenbatekoa ordainduko da izen ematea edo matrikula egitean.

4. artikulua. Prezio publikoak ikastaroa edo jarduera antolatzeko oinarriek kasu bakoitzerako ezarritako moduan eta tokian ordainduko dira.

5. artikulua. Prezioa ordaintzera behartuta dagoenari leporatu ezin zaizkion arrazoiak direla eta, ikastaroa edo jarduera egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio. Gainerakoetan, behin betiko inskripzioa eginda, ordaindutako zenbatekoa ez da itzuliko.

#### **Tarifak.**

6. artikulua.

6.1.-Aplikatzeko diren tarifek ordainduko dute betiere, gutienez, zerbitzuaren zuzeneko kostua; alegia, irakaslearen edo zerbitzua ematen duen enpresaren kostua.

6.2.-Baldin eta ikasle kopurua ez bada zerbitzu zuzenaren kostua ordaintzeko adinakoa, ikastaro hori hutsik geratuko da.

6.3.-Erroldatu gabekoen tarifa izanen da lehen atalean zehaztu den zerbitzuaren zuzeneko kostua gehi %25.

6.4.-Honako jarduera hauek diru-laguntzaren bat jasotzen badute, Udalak bere gain duen kostua tikiagotzen duena, parte hartzaile bakoitzari proportzioan dagokiona itzuliko zaio.'